



CEIP SAN INAZIO HLHI (BILBO)



Gure A. J. A. (Antolakuntza eta Jarduera Arandia)

**Nuestro R. O. F. (Reglamento de Organización y
Funcionamiento)**

SAN INAZIO HLHI-REN ANTOLAKUNTZA- ETA JARDUERA- ARAUDIA

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK¹

1. artikulua. SAN INAZIO HLHI-ren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak

1. SAN INAZIO HLHI Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dagoen ikastetxe publikoa da. Bertan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.

2. Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, SAN INAZIO HLHI-ak ezaugarri hauek ditu: plurala da, elebiduna da, demokratikoa da, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du.

Ikasleen garapen integralari emango zaio lehentasuna, askatasun, elkarbizitza, ikasteko gaitasuna, ikasketarako grina, egunerokotasunerako prestakuntza eta ingurune sozialarekiko ikuspuntu kritikoaren inguruko printzipio demokratikoak sustatuz.

3. SAN INAZIO HLHI-ak bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legeko 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Bere gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.

4. SAN INAZIO HLHI-ak, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerako eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

I. TITULUA. SAN INAZIO HLHI ko ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Aginte-organoak

1. SAN INAZIO HLHI ak Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusi diren taldeko aginte-organoak nahiz lagun bakarreko aginte-organoak izango ditu. Organo horiek EEPLn ezarritako eskumenak eta eskuduntzak izango dituzte.

a) Taldekoak: OOG, irakasleen klaustroa eta zuzendaritzako taldea.

b) Lagun bakarrekoak: zuzendaria, ikasketaburua eta idazkaria.

3. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza²

¹ Atariko titulu hori ikastetxe publikoen izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak biltzeko proposatu da. Titulu hori kentzeak ez du eraginik izango ikastetxearen gain.

1. OOGren bidez, ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalek SAN INAZIO HLHI ren kudeaketan parte har dezakete.

3. SAN INAZIO HLHI ko ikasleen partaidetza, nahiz eta ofiziala ez izan, hirugarren zikloan egingo da, beti ere kontsulta gisa.

2. Bada SAN INAZIO HLHI ren jardunean parte hartuko duen beste organo espezifikoko bat, gurasoen batzarrak Euskal Eskola Publikoaren Legean zehaztutakoari jarraiki.

3. SAN INAZIO HLHI ikastetxeko ikasleen guraso-elkarteen egoitza izango da. Ikastetxeak, hartara, lokalak utziko dizkie elkarte horiei haien jarduera gauzatu dezaten. Horrez gain, elkarrekin ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du ikastetxeak. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatuko ditu.³

4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak⁴

Tutoretzak eta taldeko, etapako nahiz zikloko irakasle taldeak, Koordinazio Pedagogikorako Batzordea, eta orientazio-departamentua SAN INAZIO HLHI ko koordinazio didaktikorako organoak izango dira, klustroaren zuzendaritzapean daudelarik.

5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak⁵

1. Ikastetxeko aginte-organoei, partaidetza-organoei eta koordinazio didaktikorako organoei zainduko dute ikastetxeko jarduerak Euskal Eskola Publikoaren Legean jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoek, halaber, EEPLn nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.

2. Horrez gain, aginte-organoei, partaidetza-organoei eta koordinazio didaktikorako organoei bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiak aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.

3. Mintzagai ditugun organoek, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiak ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK

I. ATALA. SAN INAZIO HLHI ko OOG

6. artikulua. SAN INAZIO HLHI ko OOGren ezaugarriak eta osaera

1. SAN INAZIO HLHI ko OOGren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiak hartuko dute parte ikastetxearen kudeaketan.⁶ Organo horrek SAN INAZIO HLHI aren OOG izena hartuko du.

² EEPLk ezarri ditu OOG eta 2. paragrafoan aipatu diren partaidetza-organoak. EEPLk ez du zuzenean agintzen gurasoen elkarrekin 3. paragrafoan jaso behar direnik. Nolanahi ere, 3. paragrafoan guraso-elkarrekin jasotzea legeko beste agindu batzuk betetzeko modurik onena da –elkarrekin osatzeko eskubidea bermatzea agintzen duen eskubideei eta betebeharrak buruzko dekretuak betetzeko, adibidez–.

³ Testuan hala zehazten ez bada ere, argi dago elkarte horien muga jarduera akademikoaren azpiegiturak eta garapen arruntak ezartzen dituztela.

⁴ EEPLn irakasle taldeen kontzeptu orokorra besterik ez da jaso. Talde motak beste arau batzuetatik sortu dira. Kasuan kasu aztertuko ditugu.

⁵ Legeak nahiz Eskubideei eta Betebeharrak buruzko Dekretuak ikastetxeari ezartzen dizkieten betebeharrak aplikatuko zaizkie ikastetxeko organoek, ikastetxea ordezkatzen baitute maila guztietara.

⁶ EEPLko 32.1 artikuluan iradoki da organo horri “OOG, batzar, eta abar” deitzea. Era berean, ez litzateke arazorik egongo OOG izendapen generikoa erabiltzeko.

2. OOGren eskumenak.⁷

SAN INAZIO HLHI-ko OOG-k EEPL-ko 31. artikuluan aitor zaizkion eskuduntzak ditu.

3. SAN INAZIO HLHI-ko OOG ondoko hauek osatuko dute: (EEPL 32.2)⁸

a) Zuzendaria, OOGko buru izango dena.

b) Ikasketaburua.

c) Klaustroak aukeratuko dituen hamabi irakasle.

d) Ikasleen gurasoen 18 ordezkari. Legez sortu den guraso-elkarte garrantzitsuenak ordezkari horietako bat aukeratuko du.

e) Hezkuntza Laguntzeko Espezialisten ordezkari bat.

f) Administrazioiko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.⁹

g) Udaleko ordezkari bat.

h) Ikastetxeko idazkaria. OOGko idazkari izango da. Hitza izango du, baina botorik ez.¹⁰

7. artikulua.- OOG hautestea eta berritzea¹¹

Bi urtetan behin, OOGko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdietan.

8. artikulua. Presidentea eta idazkaria aldatzea¹²

1. Zuzendaria kanpoan bada, zuzendariordea izango da ikastetxeko buru. Ikastetxean zuzendariorderik ez badago, ikastetxeko zuzendari ikasketaburua izango da edo, hala badagokio, antzintasunetik handien duen ikastetxeko OOGko irakaslea.

2. Idazkariorderik egon ezean, ikastetxeko OOGko irakasle berrienak hartuko du idazkariaren lekua. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

9. artikulua. OOGren funtzionamendu-erregimena¹³

1. OOGren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die OOGko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie:

⁷ EEPLn OOGri aintzatetsi zaizkion eskumenak –2008ko ekaineko azken aldaketak barne– I. eranskinean jaso ditugu. AJAren testuan jar daitezke, baina ez da beharrezkoa.

⁸ Kideen kopurua zehazteko, OOG onetsirik ez duten ikastetxeen gain 1994ko maiatzaren 10eko Aginduan ezarri denari jarraitu zaio. Aipatu berri ditugun jarraibideak II. eranskinean jaso ditugu. Eserlekuen zainahia banaketa da posible, betiere, proportzio hauek zaintzen badira: eserlekuen heren bat, gutxienez, irakasleek bete behar dute; eta jarlekuen erdia ikasleen gurasoek. Gurasoek eta ikasleek, beren aldetik, Dekretuan ezarri diren ehunekoak errespetatu behar dituzte. Ehuneko horiek, bidenabar, III. eranskinean ageri dira.

⁹ Administrazioiko eta zerbitzuko langiletzat hartuko dira ikastetxean lanean diharduten, Hezkuntza-administrazioak izendatu edo kontratatu dituen eta klaustroko kide ez diren pertsonak.

¹⁰ Badira zenbait ikastetxe hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleentzako gela bereziak dituztenak. Ikastetxe horien kasuan, hezkuntza-behar berezietako espezialisten ordezkari batek egon beharko du, derrigor, OOGn. Lanbide Heziketa eta Arte Plastikoa irakasten den ikastetxeetan, bestetik, erakunde profesionalek proposaturiko beste ordezkari bat egon daiteke. Kontuan hartu behar da, beraz, ordezkari berriak gehitzean gurasoen, ikasleen eta irakasleen pisua orekatu beharra dagoela. Hartara, legezko proportzionaltasuna zaintze aldera, OOGn sartzen den ordezkari berri bakoitzeko (hezkuntza berezikoa edo erakunde profesionaletakoa) irakasleen bi ordezkari eta gurasoen zein ikasleen hiru ordezkari gehiago egon beharko lirateke.

¹¹ Ikusi gaiari buruzko arauak. AJAren barruan zenbait arau sar daitezke. Nolanahi ere, araua aldatuz gero erregelamendua ere aldatu beharko litzateke.

¹² Administrazio Jardunbidearen Legeko arauak beteko dira.

¹³ Ohiko bileretarako epe laburragoa ezar daiteke. Nolanahi ere, astebeteko epea aplikatu izan da betidanik. Gainera, osagarritzat har genitzakeen Ministerioiko legeek astebeteko epea ezartzen dute oro har. Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzko legean, 48 orduko epe minimoa ezarri da ezohiko deialdietarako. Hartara, ohiz kanpoko deialdien kasuan, ezin izango litzateke astebeteko epea murriztu.

bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespena. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.

2. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.

3. OOG hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez ¹⁴. OOG bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo OOGko kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. OOGko kide guztiek derrigor joan beharko dute OOGren bileretara.

4. OOGk gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, kasu hauetan izan ezik:

a) Hezkuntza-proiektua, urteko plana eta AJA nahiz AJAren aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira.¹⁵

b) Zuzendaria berriz izendatzeko proposamena onetsi behar denean. Proposamen hori bi hereneko gehiengoaz onetsiko da.¹⁶

5. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren OOGri buruzko auziak ebazteko, administrazio-jardunbidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoa beteko da.

10. artikulua. OOGko batzordeak

1. SAN INAZIO HLHI-ko OOGk ondoko batzorde hauek osatzen ditu:

2. OOGk batzorde iraunkorra osatuko du EEPLko 36.3 artikuluan zehaztu diren funtzioak betetzeko, baita osoko bilkurak haren esku uzten dituenak ere. OOG ondoko kide hauek osatuko dituzte: zuzendaria, idazkaria, irakasle bi, ikasleen hiru guraso –sektore bakoitzean aukeraturikoak–. ¹⁷ Organo horrek gehiengo hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistemaren bidez.¹⁸

3. Bizikidetzaren Batzordea ere osatuko du OOGk. Bere funtzio nagusiak ikastetxean bizikidetzarako giro egokia egotea zaintzea eta bizikidetzaren aurkakoak diren eta bizikidetzarentzat larri kaltegarriak izan daitezkeen jokabideak zuzentzeko neurriak ezagutzea, aplikatzea eta berrikustea. Osatuko dute kide hauek: ikasketa burua, bi irakasle eta hiru ikasleen guraso. Gehiengo hartuko ditu erabakiak, boto haztatuaren sistemaren bidez.¹⁹

4. Aipatu berri dugun batzordeaz gain, Ekonomia Batzordea ere sortuko da. Batzorde horren osiera ondokoa izango da: zuzendaria, idazkaria, irakasle bat eta ikasleen bi guraso. Bere egitekoa: agintzen zaizkion auziei buruz OOGri informazio ekonomikoa ematea.²⁰

¹⁴ EEPLk ez du erakunde horrek egin behar duen bilera kopuru minimorik ezarri. Nolanahi ere, zenbait erabaki hartzeko beharra ezarri dio. Eta erabaki horiek hartzeko, nahitaez bildu beharko da urtean hainbatetan. OOG, nolanahi ere, sor litezkeen batzordeen esku utz dezake eginbehar hori, batez ere, behin eta berriz errepikatzen diren auziak landu behar badira –bizikidetzako arazoak, kasu–. Bilera bat ezarri da hiruhilekoko, orientazio moduan. Halaxe egin da, batetik, klustroek ohitura hori hartua dutelako eta, bestetik, Hezkuntza Ministerioak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako bere ikastetxeetarako ezarri dituen Dekretu Organikoetan hala agindu delako. EEPLk, nolanahi ere, urtean nahitaezko bilera bakarra egiteko aukera ematen du. Bilera horretan, ikastaroaren planeamendua eta aurreko ikasturteko txostena onetsi behar lirateke. Zuzendariak, bere aldetik, behar beste bileretarako deia egiteko eskumena du aipatu berri ditugun bi agiriari onetsi arte. Zuzendariak bere ekimenari, agindu gorenari edo OOGko kideen ehuneko jakin baten eskariei jarraiki egin dezake mintzagai ditugun bileretarako deia.

¹⁵ Erabakirik garrantzitsuenak hartzeko proposamen soila da. Puntu hau jaso ez bada, gehiengo soilez onetsiko da.

¹⁶ EEPLn ezarritako araua da.

¹⁷ Gutxieneko kideak litzateke horiek. Esan gabe doa ikasleek ordezkariak izango dituztela Bigarren Hezkuntzatik aurrera. Lehen Hezkuntzan, beraz, ikasleen gurasoek bi ordezkari izango dituzte. Udalako ordezkaria sartzea ez da derrigorrezkoa, ez baitaio esleitu ordezkari-ehuneko zehatzik. Nolanahi ere, mintzagai dugun batzordean parte har dezake.

¹⁸ EEPLk eskaintzen dituen aukeretakoa bat da. Antzaz, guztietan eraginkorra da. Legeak ezarri du proportziozko osiera. Boto haztatuaren sistemaren bidez, batzordea osatzen duten gurasoen, ikasleen eta irakasleen botoek OOGko osoko bilkuran duten pisu berbera izango dute. Kopuru minimoa proposatu da: guraso bat, ikasle bat edo irakasle bat. Nolanahi ere, argi dago ordezkari horiek baino gehiagok osa dezaketela mintzagai dugun organoa.

¹⁹ 160/1994 Dekretuan eta Eskubideen nahiz betebeharren egungo Dekretuan Bizikidetzaren Batzordea eratzea aurreikusi zen, boluntario moduan. EEPLk ez du berariaz derrigorren proportzioa mantentzera. Nolanahi ere, Lege horren ildoari so, zentzuzko dirudi.

²⁰ 82/1986 Dekretuan aurreikusi zen batzordea dugu. Dekretu hori taldeko aginte-organismoak arautzen lehena izan zen. EEPLn eta geroko dekretuetan Ekonomia Batzordea aipatu ere ez da egiten. Nolanahi ere, hura mantentzea aukerarik egokiena dela ematen du. Ekonomia Batzordearen hasierako araubideak IV. eranskinean jaso dira.

5. Segurtasuna, osasuna eta jantokiari buruzko gauzen inguruan aritzeko, Jantoki, Higiene eta Segurtasun batzordea ere osatuko du OOGk, zuzendaria, jantokiko arduraduna, lan arriskuen arduraduna, irakasle bat, bi ikasleen guraso eta ez irakasle batekin osatuta.

6. OOGk auzi zehatzez arduratuko diren batzordeak sor ditzake. Batzorde horiek sortzeko erabakian haien esku utzi diren eskumenak izango dituzte eta erabakian ezarri bezala sortuko dira. Sortzen diren batzorde guztiek –artikulu honetako lehen hiru paragrafoetan zehaztu direnak barne– azterketak, txostenak eta proposamenak egin ditzakete beren eskumeneoak diren gaiari buruz. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan, indarrean dauden arauak betetzearekin lotura duten zenbait gai aztertu dira. Arauetan aurreikusi diren kasu zehatz horietan izan ezik, sortu diren batzorde bereziek erabakiak har ditzakete. Horretarako, berariazko eskumena behar dute eta batzorde iraunkorra nahiz bizikidetzabatzordearen moduan osaturik egon, hau da, OOGko osaearekiko proportzionalak izan behar dira. Batzorde berezien esku, beraz, gehiengo soilez ebatz daitezkeen erabaki guztiak utz daitezke.²¹

II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

11. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera

1. Irakasleen klaustroa, SAN INAZIO HLHI-ko aginte-organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte hartze organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo goren da. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planeatzeko, koordinatzeko erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du.

2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. SAN INAZIO HLHI-ko idazkaria klaustroko idazkari izango da ere.

3. Zuzendaririk egon ezean, ikasketaburua izango da klaustroko buru²². Eta zuzendaririk nahiz ikasketabururik ez badago, antzinasunik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, irakasleetan berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

1. Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez²³, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat.

2. Klaustroko kide guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara.

3. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko aurrerapenaz egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.

4. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administrazioko Prozedura Erkidearen Legeko II. tituluko 2. kapituluan ezarritakoari jarraituko dio klaustroak.

13. artikulua. Klaustroaren eskumenak

EEPLko 35. artikuluan eta indarrean dauden beste xedapen batzuetan, irakasleen klaustroaren funtzioak zehaztu dira.²⁴ (Ikasturte hasierako ebazpena)

²¹ Gurasoen, ikasleen eta irakasleen kopuruak proportzionalak izan behar dira. Hartara, esan genezake, batzorde iraunkorarentzat legeak zehaztu duena analogiaz aplikatuko zaiela batzorde bereziei.

²² Zuzendariorderik existitzen ez bada.

²³ Ikusi 17. oharra

²⁴ OOGrekin gertatu bezala, gaiari buruzko arauak begira ditzakezue. AJAren barruan zenbait arau sar daitezke. Nolanahi ere, araua aldatuz gero erregelamendua ere aldatu beharko litzateke. EEPLn egun ageri diren eskumenak V. eranskinean jaso dira.

III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

14. artikulua. Zuzendaritza taldea

1. Pertsona bakarreko aginte-organismoek SAN INAZIO HLHI ko zuzendaritza taldea osatzen dute. Horiek guztiek modu koordinatuan betetzen dituzte beren funtzioak.
2. Zuzendaritza taldeak EEPLko 36. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioak izango ditu ²⁵ baita OOGk edo irakasleen klaustruak bere esku uzten dituenak ere.
3. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitzo, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utz ditzake, batez ere, zikloko edo etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku. ²⁶
4. SAN INAZIO HLHI n, pertsona bakarreko organo hauek osatuko dute zuzendaritza taldea: ²⁷ Zuzendaria, Ikasketa burua eta Idazkaria.

III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

15. artikulua. Zuzendaria

1. SAN INAZIO HLHI ko zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean, eta ikastetxeko taldeko aginte-organoen buru da.
2. Zuzendariak EEPLko 34. artikuluan ezarri diren eskuduntzak eta eskumenak ditu. ²⁸

16. artikulua. Ikasketaburua

Ikasketaburuak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, EEPLren 41. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. ²⁹ Ikasketaburua, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du.

17. artikulua. Idazkaria

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, EEPLren 42. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. ³⁰ Zuzendariaren agintepean, ikastetxean aritzen diren administrazio eta zerbitzuetako langileen buru izango da.

18. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzea eta kargua uztea

EEPLn nahiz arauzko xedapenetan aurreikusitakoa beteko da pertsona bakarreko aginte-organismoak izendatzeko eta izendatuek kargua uzteko.

19. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzeari

²⁵ VI. eranskinean jaso dira.

²⁶ Legez, zuzendaritza taldea eragile hauekin osa daiteke: koordinatzaileekin, premia arduradunekin, kalitate-arduradunekin, EGA/AKA arduradunekin, eta abar.

²⁷ Zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkariak gain, ikasketaburu-albokoak, zuzendariordeak eta idazkari ordeak izango dira zuzendaritza taldean. EEPLn ezarri da zuzendaritza taldea nola osatu behar den. Nolanahi ere, zuzendaritza taldeko zenbait eskumen irakasleren baten esku utz daitezke. Irakasle horrek, hartara, zuzendaritza taldeko bileretara joango da.

²⁸ VII. eranskinean jaso dira.

²⁹ VIII. eranskina

³⁰ VIII. eranskina

1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketaburuak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.³¹
2. Ikasketaburua kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariak agintzen duen irakasleak beteko ditu haren funtzioak behin-behinean. Zuzendariak bere erabakiaren berri emango dio OOGri.³²
3. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, eta ikastetxean idazkariorderik ez badago, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu idazkariaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman behako dio OOGri.
4. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, zuzendariordea edo ikasketaburua jarduneko zuzendari izango dira. Jarduneko zuzendariaren eskumen berak izango ditu, baita artikuluko honetako 2. eta 3. paragrafoetan jaso direnak ere.

IV. KAPITULUA. IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK

20. artikulua. SAN INAZIO HLHI ko koordinazio-organoak

SAN INAZIO HLHI n irakaskuntzaren koordinazio-organo hauek egongo dira:³³

- a) Koordinazio Pedagogikorako Batzordea. Orientabide-departamentua.
- b) Mailako, zikloko edota etapako irakasle taldeak.
- c) Hezkuntza premia berezien departamentua.
- d) Beharren arabera osatzen den beste edozein batzorde edota departamentu.

I. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA³⁴

21. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera

SAN INAZIO HLHI n Koordinazio Pedagogikorako Batzorde bat egongo da. Ikasketaburua, zikloetako koordinatzaileek eta kontsultoreak osotuko dute Koordinazio Pedagogikorako Batzordea, ikastetxeko ikasketa burua buru izango duelarik. Zikloak ondoko hauek izango dira: Haur Hezkuntza, LH lehen zikloa, LH bigarren zikloa eta LH hirugarren zikloa. Osaera hau aldakorra izan daiteke Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak edota irakasleen Klaustroak hala erabakitzen badu.

22. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak³⁵

1. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea irakasleen klaustroko batzordea da. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen funtzio nagusia curriculum-proiektua eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea izango da.
2. Egiteko hori betetzeko jarraian aipatuko ditugun eskumenak izango ditu, betiere, irakasleen klaustroaren zainzapean egonik:
 - a) Etapako curriculum-proiektuak lantzeko eta berrikusteko zuzentarau orokorrak ezartzea.

³¹ Zuzendariorderik ez bada.

³² Zuzendariorderik ez bada.

³³ Ikastetxeetan egon ohi direnak dira. Irakaskuntzako taldeak, oro har, eta tutoreak EEPLn aurreikusirik daude. Departamentuak eta Koordinazio Pedagogikorako Batzordea beste arau batzuetan ageri dira.

³⁴ Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza LOGSE ezartzeko Arauak aplikatuz Koordinazio Pedagogikorako Batzordea sortu zen. Batzorde horrek eskumen tekniko-pedagogikoak ditu. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea Bigarren Hezkuntza ere egon beharko litzateke, departamentuetako buruen batzordeak zituen funtzio berberak baititu. Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak eskumen teknikoak baino ez ditu. Horregatik klaustroaren baitako batzorde izango da, ez OOGrena.

³⁵ Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak hainbat testu legeletan jaso dira.

- b) Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak lantzeko eta berrikusteko prozesua ikuskatzea. Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak koordinatzea eta beroriek idaztea. Etapako curriculum-proiektuak ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin bat datozela ziurtatzea.
- c) Departamentuen, ikasleen orientazio akademikoari nahiz profesionalari buruzko planaren zein tutore-ekintzarako planaren programazio didaktikoak lantzeko eta aztertzeko irizpide orokorrak finkatzea.
- d) Klaustroari curriculum-proiektuak proposatzea, onar ditzan.
- e) Etapako curriculum-proiektuak betetzen direla zaintzea eta ebaluatzea.
- f) Klaustroari ebaluazio- eta kalifikazio-bilkuren plangintza orokorra proposatzea, baita azterketak edo aparteko probak egiteko egutegia ere, ikasketaburuak diosenaren arabera.
- g) Irakasleen klaustroari planak proposatzea ondoko hauek ebaluatu ditzan: etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza, urteko programazio orokorra, ikastetxean eskola-errendimenduak izan duen eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua.
- h) Ikastetxeko jardura nahiz proiektu guztiak ebalua daitezela sustatzea, Hezkuntza Administrazioaren edo aginte-organoen ekimenez gauzatzen diren ebaluazioetan laguntzea, eta ebaluazio horien ondorioz beharrezko gerta litezkeen hobekuntza-planak sustatzea.

II. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE TALDEEN IRAKASLEAK

23. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea ³⁶

1. Tutore izatea eta ikasleak orientatzea irakasleen berezko funtzio dira.
2. SAN INAZIO HLHI ko ikasle talde bakoitzak bere tutorea izango du³⁷.
3. Zuzendariak izendatuko du talde bakoitzeko tutorea. Horrela, ikasketabuaren proposamena kontuan harturik, ikasleei eskola ematen dien irakasleetako bat aukeratuko du, betiere, ikasturtea antolatzeari buruz Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenean jaso diren jarraibideekin bat etorriz.
4. Ikasketaburuak tutoreen lana koordinatuko du eta, aldiari aldiro, beharrezkoak diren bilerak egingo ditu tutoretzek egoki funtziona dezaten.

24. artikulua. Tutoreen funtzioak

Tutoreek ikasturtero beren gain hartuko dituzte ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenean esleitu zaizkien funtzioak eta atazak.³⁸

25. artikulua. Talde bateko irakasleen erregimena eta osaera

1. Ikasle talde berari eskolak ematen dizkieten irakasleek talde bat osatuko dute, eta talde hori ikasle taldearen tutoreak koordinatuko du.
2. Ikasle taldearen irakasleak ebaluazioari buruzko araudietan ezarritakoaren arabera bilduko dira. Ikasketaburuak egingo du bilerarako deia, ikasle taldeko tutorearen eskariz.

26. artikulua. Ikasle taldeko irakasleen funtzioak

Ikasle taldearen irakasleek funtzio hauek izango dituzte:

³⁶ Ikasturteko antolamenduari buruzko ebazpena oinarri hartuko da tutoretzak arautzeko.

³⁷ Curriculum desberdinetako taldeetan, hezkuntzan espezifikoki esku hartzeko proiektuetan eta esku-hartze osagarrietan bi tutore egon daitezke.

³⁸ XI. eranskinean, ikasturte honetan tutoreei esleitu zaizkien eskumenak eta funtzioak ageri dira.

- a) Taldeko ikasleen ebaluazio eta segimendu orokorra egitea. Horretarako, ikasleen ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte, betiere, ebaluazioari buruzko legeetan ezarri diren baldintzei jarraiki.
- b) Taldeko bizikidetzagiroa hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.
- c) Taldearen baitan sortzen diren gatazkak modu koordinatuan lantzea eta gatazka horiek ebazteko neurriak egokienak ezartzea.
- d) Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien ikaskuntza- nahiz irakaskuntza-jarduerak koordinaturik egon daitezela zaintzea.
- e) Taldeko ikasleen gurasoei edo tutoreei emango zaien informazioa ezagutzea eta hura osatzen laguntzea.
- f) Ikastetxearen barne-araudian ezartzen diren gainerako funtzioak.

27. artikulua. Zikloko taldeak

Lau ziklo egongo dira: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. Ziklo. Koordinazio pedagogikarako Batzordeak hala erabakitzen badu aldatuko dira, beti ere indarrean dagoen araudia betetzen bada.

Ikasturte hasierako ebazpenaren arabera izendatuko dira koordinatzaileak eta beren funtzioak ondoko hauek izango dira:

- a) Etapa edota zikloko taldeako bilerak antolatu, dei egin eta zuzendu.
- b) Etapako curriculum proiektuaren ekoizpenean parte hartu.
- c) Koordinazio pedagogikorako Batzordearen partaide izan.
- d) Zikloko tutoritza funtzioak koordinatu
- e) Proiektu curricularrari jarraiki etapa edota zikloko ikasketak koordinatu.
- f) Osagarritzako ekintzak koordinatu
- g) Ikasketa buruak bere kompetentzien barruan ematen dizkietenak.

Zikloko taldeei ondoko funtzioak dagozkie:

- a) ICPari jarraiki, arloetako programazio didaktikoak egitearen koordinazioa.
- b) Programazio didaktikoen inplementazioaren emaitzak aztertu eta dagozkien aldaketak txertatu.
- c) Hezkuntza ekintzen garapenerako irizpideak bateratu.
- d) Zuzendaritza taldeari formazio proiektu eta planak proposatu.
- e) Ikastetxeko plan eta proiektuetako planifikazio eta garapenean parte hartzea.
- f) Ikastetxeko organo kompetenteek ezartzen dizkietenak.

III. ATALA. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIKO-DEPARTAMENTUA ³⁹ ETA BESTE DEPARTAMENTU BATZUK

28. artikulua. Hezkuntza premia bereziko-departamentuaren osaera

Orientabide-departamentua ondoko hauek osatuko dute:

- a) Ikastetxeko Kontsultorea
- b) Pedagogia Terapeutikoan espezializatutako maisu-maistrak.
- c) Entzumen eta mintzamenean espezializatutako maisu-maistra.
- d) Hezkuntza Laguntzako espezialistak.
- e) Ikasketa burua.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ekasleez gain, curriculum egokitzapenak egiten eta tutore, berritzeguneko aholkularia eta kanpoko eragileekiko koordinazioaz ere arduratuko dira. 118/1998 Agindua, ekainaren 23koa.

29. artikulua. Departamentu didaktikoak

Pedagogikoki zikloka funzionatu arren, irakasle bat baino gehiagok ematen duten arloetako koordinazioko departamentuak egon daitezke: ingelesa, heziketa fisikoa,...

V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK

I. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK ETA IKASLE ELKARTEAK

30. artikulua. Gurasoen Batzarra⁴⁰

1. SAN INAZIO HLHI ko Gurasoen Batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Zuzendariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da Gurasoen Batzarra, betiere, ez bada beste prozedura bat aukeratzen, artikuluko honen 2. eta 3. e) ataletan azaltzen den ahalmenean oinarrituta.
2. Gurasoen Batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barne-organo horrek Gurasoen Batzarraren bilerak antolatuko ditu eta Batzarrak hartutako erabakiak gauzatzeko direla gainbegiratuko du.
3. Gurasoen Batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:
 - a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa-programa gauzatzearen balioespena.

³⁹ EEPLn jaso ez bada ere, Orientabide-departamentuak eta departamentuko buruak eskumen zehatz batzuk izango dituzte, betiere, baldintza jakin batzuk betez gero. Eskumen horiek ikasturteko antolamendu-gutunean aitortu ohi zaizkie. Aurtengo eskumenak IX. eranskinean ageri dira. Orientabide-departamentua Bigarren Hezkuntzan eratu ohi da. Horrek ez du esan nahi Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan Orientabide-departamenturik egon ezin denik. Bigarren kasu horretan, aholkularia egon beharko litzateke departamentuan. Orientabide-departamentua ikastetxearen mende dago eta ez du izango Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako xedapenetan –indarrean dauden horietan bederen– aurreikusi den aintzatespen ekonomiko eta administratiborik.

⁴⁰ EEPLk sortutako organoa da.

- b) Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortze aldera.
- c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.
- d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak Gurasoen Batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.
- e) Funtzionamendurako bere arauak onestea.

31. artikulua. Ikasleen guraso-elkarteak eta ikasle-elkarteak

1. SAN INAZIO HLII k, indarrean dagoen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen guraso-elkarteak arautzen dituenak– xedatzen duenaren arabera eratuko diren ikasleen guraso-elkarteak aintzatetsiko ditu, haien egoitza izango da eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die. Ikastetxeak, halaber, legalki sortu diren ikasle-elkarteen egoitza izango da eta ikasle-elkarteei ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die.
2. Zuzendariak zehaztuko du legalki eratu diren elkarteek zer lokal erabiliko dituzten modu iraunkorrean. Zuzendariak, elkarten ordezkariak hala eskaturik, gune komunak erabiltzeko baimena emango die arestian aipatutako elkarteei.
3. OOGn ordezkari aritzeko, guraso-elkarerik garrantzitsueneko kide bat aukeratuko da, halaxe zehaztu baita arauetan. Aipatu berri dugun kasuan izan ezik, legalki eratu diren elkarteak ez dira inola ere baztertuko.
4. Ikastetxeko aginte-organoez ez dituzte ikasleen gurasoak edota ikastetxeko ikasleak jardutez edo ez-egitez behartuko elkarte eratuetakoa batean izena ematera ezta elkarte eratuetakoa bat diruz laguntzera ere.

32. artikulua. Elkarte legalki eratu bidez parte hartzea

Ikastetxean eratu diren ikasleen guraso-elkarteek nahiz ikasle-elkarteek ondoko hauek egin ditzakete:

- a) OOGri hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra lantzeko nahiz aldatzeko proposamenak egin.
- b) OOGri ikastetxearen martxari buruz egoki deritzon alderdien berri eman.
- c) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei bere jardueren berri eman.
- d) OOGn landu diren gaien buruzko informazioa jaso. OOGren gai-zerrenda jasotzea hark bilerak egin aurretik, proposamenak prestatu ahal izateko.
- e) OOGrako txostenak egin, bai guraso- nahiz ikasle-elkarteen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta.
- f) AJA aldatzeko proposamenak landu.
- g) Jarduera osagarriak egitea proposatzea.
- h) Emaidza akademiko orokorren nahiz berorien gain ikastetxeak egiten duen balioespenaren berri izatea.
- i) Hezkuntza-proiektuaren, curriculum-proiektuen eta proiektu horien aldaketan ale bat jasotzea.
- j) Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuak eta ikasmaterialei buruzko informazioa jasotzea.
- k) Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko elkarlana sustatzea.
- l) Ikastetxeko aretoak erabiltzea, zuzendariak ezarritako baldintzetan.

33. artikulua. Iksaleen gurasoen eskubide eta betebeharrak

Honako eskubideak dituzte:

- a) Zentroarekiko harremanak euskaraz izatea.
- b) Arraza, sexu, erlijio, giza edota beste edozein arrazoiengatik baztertuak ez izatea.
- c) Ezarritako prozeduren bidez zentroko kudeaketan parte hartzea.
- d) Hezkuntza komunitatean integratzeko erraztasuna izan.
- e) Beraien seme alaben heziketarako garrantzizkoak diren asuntuaz irakasle, tutore edota gobernu organoek informatuak eta entzunda izatea.
- f) Irakasle, tutore edota gobernu organoek informatuak eta entzunda izatea, beraien seme-alabari jarrera zuzentzeko nehurriak egokitu bazaizkio edo espediente informatiboa ireki bazaio.
 - a. Prozedura hauxe izango da:
 - i. Gurasoek tutorearekin hitz egingo dute
 - ii. Nahiko izango ez balitz, ikasketa buruak esku hartuko luke.

g) Adinbaekoaren hezkuntzarako onuragarri deritzoten dokumentu edota materialak aportatzea.

Ondoko betebeharrak dituzte:

- a) Arraza, sexu, erlijio, giza edota beste edozein arrazoiengatik inor ez baztertea.
- b) Beraien seme-alaben hezkuntza prozesuaz interesa adieraztea.
- c) Ikastetxera puntualtasunez bertaratu eta hutsuneak justifikatzea. Idatziz egingo dute eta seme-alabaren bidez helarazioko diote tutoreari.
- d) Behin eskola ordutegia amaituta, ikasleen ardura gurasoedo tutore legalarena da. Hala da 09:00 etan edo 14:30k baino lehen ere.
- e) Ikasleak eskola ordu barruan irten behar izatekotan, idatziz ekarri beharko du zein ordutan. Gurasoak etorri arte ikasleak ikasgelan edo jantokian itzarongo du. Heltzen direnean atezainari edo zuzendaritzan abisatuko dute ikaslea ekartzeko; inoiz ez dira zuzenean ikasgelara igoko.
- f) Gurasoek tutoreei esango diete zeintzu pertsonak arduratuko dira seme-alaba hartzeaz. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleak tutoreek entregatuko dituzte. Bigarren ziklokoak irakasleak ikasleekin jaitsiko dira eta guztiak hartuta izan direla ziurtatuko dute. Hirugarren ziklokoak bakarrik irtengo dira; ikasturte hasieran ikastetxetik bakarrik irtetzeko baimena sinatuko dute. Eskolaz kanpoko ekintzetako ikasleak ekintzen ardurapean geldituko dira.
- g) Beraien seme-alaba gaixorik dagoenean behar duen zaintza eman, eskolara ekartzea justifikaziorik gabe gelditzen delarik.
- h) Ikasleak eskolako zereginarako behar duen material eta baliabideak ekartzeaz eta bere zaintzaz arduratuko da familia.
- i) AJA honetan zehaztutako elkarbizitza arauak ezagutzea eta onartzea, eskola giro onean partehartzaile aktiboa izanez.
- j) Beraien seme-alaben heziketan irakasleekin kooperatu.
- k) Seme-alaben formazio integrala lagundu eskolako irudi ona sustatuz eta lagunkidetasuna eta kooperazio zentzua mantenduz.

Honetariko arauen bat betetzen ez denean tutoreak hitz egingo du familiarekin. Egoera errepikatzen bada zuzendariak hartuko du familiarekin hitz egiteko ardura. Jarraitzen bada egoera giza zerbitzuei berri eman beharko diegu.

34. artikulua. Istripuak, gaixotasunak, arreta medikoa eta erantzukizunak

Ikasturte bakoitzean azaltzen diren gertakariak kontutan izanda, istripu baten aurrean jokabide bateratua zehazteari komenigarria deritzogu.

- Ikasle batek istripua duen momentuan hurbilen dagoen irakasleak arreta eskainiko dio; baloratuko du larritasuna eta egokia iruditzen bazaio lehenengo zainketa egingo dio, hau da, ur eta xaboiz edo sueroz garbituko dio (Eusko Jaurlaritzak agintzen duenari jarraiki)
- Larriagoa dela baloratzen bada eskola aseguruaren medikuari deituko zaio, ikaslea beseroa bada, eta familiari jakinaraziko zaio, diagnostikoaz gero informatuz. Eskola aseguru ez izatekotan, familiari deituko zaio beraiek ardura har dezaten.; ezin bada gurasoekin kontaktuan jarri edo larria bada lesioa, premiazko zerbitzuetara deituko da (112), beraien esanetara jarriz zentrorra heldu arte. Osasun zentrorra edota ospitalera eraman behar izatekotan tutorea lagunduko du ikaslea familia bertaratu arte.
- Ikaslea gaixorik dagoenean familiaren ardura da zaintzea eta arreta ematea, eskolara bidaltzea justifikatu gabe gelditzen delarik. Zentrotik giza zerbitzuei informatuko die ikusten bada egoera errepikatzen dela.
- Eskolan egonda, ikasle bat gaixotzen bada, tutoreak familiari deituko dio kargu egiteko, ez bada larria bezala baloratzen badugu, orduan istripuaren kasuan bezala jokatu da.
- Araua bezala eskolako langileek ez dute medikaziorik emango. Noizbait, gaixotasun kronikoa duelako, ikasle batek arreta berezia edota tratamendu zehatz bat hartu behar badu ondoko jarraibideak jarraituko dira:
 - Familiak idatziz eskatuko du zuzendaritzan, meduku ziurtagiriarekin batera non azaltzen den zer, zergatik eta nola eman. Gurasoek idatzian espresoki adierazi behar dute tratamendua ematen duena administratzeak ekarri ahal dituen ondorioen arduratik kanpo gelditzen dela. Ikastetxetik aholkua eskola medikuari eskatuko dio.
 - Mediku ekintza bat denean, zuzendaritzak barrutiko osasun zerbitzura eskatuko du kualifikatutako pertsonak egitea.: Irakasleak, kasu honetan ez du eskuhartzerik izango.
 - Jantoki garaian jantokiko arduraduna eta begiraleak dira ikasleekin ardura dutenak.
 - Eskola ordutegiaz kanpoko orduetan haurren erantzukizuna gurasoena izango da. Istripua gertatzekotan beraiek arduratuko dira. “Patio Zabaliak” eskolaz kanpoko ekintza antolatzen badu haiek hartuko dute garai honen erantzukizuna eta eskola aseguru erabiliko da, bezeroa izatekotan; ez izatekotan haurraren gurasoak arduratu beharko dira.

Nahiz eta eskola aseguru egon, honek bakarrik du eragina kontratatu dutenentzat eta eskola ekintzetarako eta osagarritzko eta eskolaz kanpoko ekintzetarako.

35. artikulua.- Patio irekia, eskolaz kanpoko ekintza

Zentroaren erantzukizunpeko ekintza, Eskolako Organo Gorenaren bitartez. Familiek urtero ekintza honetarako onartutako araudia betetzearen konpromezua hartuko dute. Arau horiek honakoak dira:

-Ekintza honen erantzukizuna, Kontseiluak baietztatua, komunitate osokoa da. Zehaztutako arauak betetzen ez badira bertan behera geldituko da ekintza. Horretarako familiek onartuko dituzte espresoki- ezagutzen dituztela eta betetzeko konpromezua hartzen dutela adieraziko dute bereziki hori eskatzen duen dokumentua sinatuz.-

-Patio irekia ekintzaren ordua 16:00-18:00 izango da; beraz azken ordu honetan patioa utzik geratu behar da.

-Ikasleen arduradunak gurasoak edo tutore legalak izango dira.

-Zentroko instalazioak errespetatuko dira, kalteak saieztuz, gertatzekotan eragiten duenaren ardurapean gelditzen direlarik.

-Ikasleren batek istripua izatekotan, erantzun medikoaren ardura gurasoek hartuko dute. Haiiek ez egotekotan, eta beharrezkoa balitz AMPAren bulegora zuzenduko da telefonoz deitzeko.

-Ikasleren batek jarrera desegokia izatekotan bere arduradunei jakinaraziko zaie.

-Garai honetan galdutako materiala- baloiak, arropa, jostailuak...- ostiralean arratsalde berreskuratu ahal izango da atezaintzan.

-Bereziki kontutan hartzekoa:

-Bizikletak, patinak, patineteak... guztiz debekatuta daude (ez bada antolatutako ekintza)

-Erretzea debekatuta egongo da eskolako espazio osoan.

-Txakurrak eta maskotak eskolako espazioan eta sarreretan ere galerazita dago

-Ez tutuetatik ez eta beste edozein modutan ere terrazetara igotzea debekatuta dago.

-Patioko itxura eta garbiketa zaindu: hondakinak ez bota lurrera...

36. artikulua. Beste zerbitzu batzuk- JANTOKIA

Hezkuntza departamentuko, 2000eko martxoaren 22ko aginduak Jantokiko zerbitzua arauten du eta, hezkuntza prestazioa, osagarri, konpensatzaile eta giza zerbitzu bezala ezartzen du.

Zerbitzu honetako arduradunak ondoko eginkizunak izango ditu: ikasleen bertaratzea, jantokiko partsonalak ematen duen arreta, janarien kalitatea, osasun arazoientatik berariazko zaintza behar duenari ematen zaion arreta eta zerbitzu honen araudia betetzearen bermea.

Zerbitzu honetako prezioa ikasturte hasieran E Jko Hezkuntza Sailak jartzen duena izango da, ikaslea bekaduna bada edota zerbitzua egunero edo aldizka erabiltzen duenaren arabera.

Helburuak:

Hurrengoak proposatzen ditugu:

- a) Higiene eta jateko ohitura osasuntsuak bultzatu, osasun hezkuntza onaren oinarri bezala.
 - Elikadura anitza, nahikoa eta orekatua eman.
 - Elikagaiak egoki erabili
 - Higiene osasun ohiturak martxan jarri: eskuak garbitu, hortzak garbitu, lurrera jausten diren tresnak aldatu...
 - Zapora desberdinak dastatzen hasi, eta mota guztietako elikagaiak jan.
 - Mahaian jarrera egokia eduki

- Tresnak egoki erabili
 - Janariekin arazoak dituzten hurren egoere ulertu eta lagundu.
- b) Elkarbizitza eta kooperazio ohiturak eskuratu eta praktikan jarri
- Berdinen arteko kooperazioa bultzatu ikasleak besteei laguntzeko egin ahal dutena egitea ahalbideratuz.
 - Jantokia erabiltzen dutenekiko jarrera positiboa, begirunezkoa eta atsegina eduki
 - Mahaian portaera egokia izan.
 - Giro lasaia lortu, ohiuak bastertuz.
 - Tresnak, altzairuak eta espazioak zaindu eta errespetatu.
 - Espazio desberdinetan egoki jokatu, bakoitzak dituen arauak errespetatuz.
 - Aisialdia kudeatzeko estrategiak eman.
 - Eskolaz kanpoko ekintzen bidez eskola denborarekiko lotura erraztu.

Funtzionamenduko arau orokorrak.

1. Eskola jantokia hezkuntza komunitate osoari eskaintzen zaion zerbitzu asistentziala da, eta hala ulertu behar dute familiek, irakasleek eta langileek.
2. Eskola janoki ona izateko ezinbestekoa da denon interesa eta parte hartzea.
3. Bakoitzak dituen funtzioak bete behar dira denok nahi dugun kalitatezko zerbitzua izan ahal izateko.
4. Jantokiko orduak, nahiz eta eskolako ordutegi barrukoak ez izan, bai dira eskolak eskolak eskaintzen duen zerbitzu batekoak, beraz, beraien kudeaketa ona denon ardura da.
5. Denbora honetan ere, hau da, goizeko eta arratsaldeko eskola orduen tartekoa, klaseko ordutegien arautegi berbera dago indarrean bai disziplina aldetik zein instalazio, material, besteen tratu eta abarri dagokionez ere.
6. Edozein ikaslek erabili halko du jantoki zerbitzua. Honetarako jantokiko arduradunari eman beharko dizkio datuak, ahal bada, 48 ordu aurretiz.
7. Zerbitzuaren ordainketa bankuaren helbideratze bidez egingo da.
8. Bost egun jarraian falta izatekotan, beti 48 ordu aurretiz abisatuz gero, prezioaren %50a bueltatuko da. Diru hau ikasturteko azken hilean bueltatuko da.
9. Bazkaltzeko txandak zerbitzuaren arduradunak antolatuko ditu.
10. Zerbitzua erabiltzen duten ikasleek hilaren hasieran menua ren kopia eramango dute etxera.
11. Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urtekoei fitxa bat beteko zaie non informatuko den nola bazkaldu duten. 4 urtetik aurrera bakarrik egingo zaie txarto bazkaldu dutenei edota arazoren bat sortzen denean.
12. Eskolako informazio txostenarekin batera jantokiko txostena luzatuko zaie familiei (hiruhilabete bakoitzean), bai LHn zein HHn. HH2 eta 3 urtekoei egunero emango zaie.
13. Elikagai baten bati alergia badio ikasleren batek, familiak jakinarazi, mediku ziurtagiriaren bidez, jantokiko arduradunari.

Irakasleei dagokiena:

1. Eskolako irakasleek Jantokiko langileei behar den laguntza emango diete (datuak, ikasleei buruzko informazioa...)
2. Klaseko ordutegian tutoreek ikasleekin jantokiko garrantzia eta arauak landuko dituzte eta kontrolatuko dute betetze maila.
3. Lan hau ikasturte hasieran eta ikasturtean zehar egingo da.
4. Jantokiko begiraleen ardura izango da garai horretan gertatutako intzidentzi eta jarrera desegokiei buruz tutoreei informatzea.

Ikasleei dagokiena:

1. Jantoki garaian begiraleek izango dira autoritatea dutenak.
2. Pertsona hauei ikasleek izango diete dagozkien begirune, laguntza eta obediencia.
3. Jantoki orduetan ikasleek ezin izango dute egon, ibili edo erabili zentroko gela, material edo ikasgela ez bada begiraleren batek lagunduta.
4. Jantokian sartu baino lehen eskuak garbituko dituzte
5. Sarrerak eta irteerak lasai eta isilean egingo dira.
6. Bazkaltzen den bitartean ikasleak bere tokian egongo dira, altxatu gabe, besteak molestatu gabe eta ozenki hitz egin gabe.
7. Ikasleek egoki erabili behar dituzte jateko tresnak eta jakiak, lurrera edo besteei bota gabe.
8. Ikasleak ez dira lekutik alde egingo begiraleak baimena eman baino lehen.
9. Janaria, ogia, postrea eta edozein beste jaki jangelan jango da, ez da bertatik aterako.
10. Bazkaldu ostean eta klaseak berriro hasi arte ikasleek jolastu, hitz egin, ikasi eta eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu ahal izango dute, beti horien arduradunek lagunduta.
11. Jantoki zerbitzua erabiltzen duten ikasleak zentro barruan egongo dira jantoki garaian; ezin izango dira irten.
12. Ikasleak bere eskakizunak dagokion begiraleari zuzenduko dizkio; ezin badu, jantokiko arduradunari.
13. Jantokia erabiltzen ez duen ikasleek 14:20 arte itxarongo dute zentrorra sartzeko.
14. Ikaslearen ezozekin jarrera desegokiaren aurrean ikasleen eskubide eta betebeharren dekretuari(201/2008, abenduaren 2koa) eta eskolako Elkarbizitza Planari jarraiki jokatuko da.

Familiei dagokiena:

1. Jantoki zerbitzua erabiltzen duten familiek ezagutu eta onartu beharko dute zerbitzu honen funtzionamendu araudia.
2. Gurasoek zerbitzuaren arautegiari buruzko informazioa izateko eskubidea dute.
3. Familiek beraien seme-alaben jantokiaren funtzionamendu onerako behar diren arauak eta ohiturak sustatu beharko dituzte.
4. Halaber, ahal denean, familiaren ardura izango da 24 ordu aurretik abisatzea idazkaritzan ikaslea gaixorik badago edo beste edozein arrazoiagatik ez badu egunen batean zerbitzua erabiliko.
5. Jantokia ez duen erabiltzen ikasle batek bazkaltzen garatzen bada egun batean edo batzuetan, 48 ordu aurretik idazkaritzan esan beharko du, bertan dagokion ordainketa eginez.

6. Jarrera desegokiagatik ikasleari ezarri zaizkion neurri zuzentzaileak ezagutzeko eskubidea dute eta onartu eta ikasleari barneratze prozesuan lagundu beharko dute.
7. Familiek iradokizunak, kekek edo denadelakoa zuzendu ahalko dizkiote arduradunari edo dagokion batzordeari.
8. Familiek aukera izango dute zerbitzu honi dagozkion erabakietan parte hartzeko, partaide diren Eskola Organo Gorenaren batzordearen bidez.

Begiraleei dagokiena:

Jantokiko begiraleak zerbitzuaren arduradunaren eta zuzendaritza taldearen superbisiopean lan egiten dute, jantoki garaian egiten diren ekintzak garatuz. Hauek egin behar dira ikasleekiko jarrera positiboa eta aktiboa izanda, atseginez eta era komunikatibo batez.

Ondoko funtzioak dituzte:

- a) Taldeak antolatu eta areagotzeko ekintzak prestatu eta garatu, ikasleen segurtasuna eta elkarbizitza zainduz.
- b) Jan ohituren jarraipena egin; mahaien arreta eta zerbitzuan kooperatuz eta ikasleen sarrerak eta irteerak kontrolatuz.
- c) Higiene ohiturak eskuratzen eta mahaietan eta beste ekintzetan eduki beharreko jarrera izaten lagundu.
- d) Txostenen bidez familiei beraien seme-alabei buruzko informazioa eman.
- e) Disziplina mantendu.
- f) Arauak ezagutu eta betearazi.
- g) Betetzen ez dituztenei neurri zuzentzaileak jarri
- h) Ikasleak zaindu eta lagundu bazkaltzeko denboratik klaseko ordua heldu arte
- i) Jantokiko asistentzia kontrola eraman.
- j) Arazoak, eragozpenak, intzidentziak, beharrak eta ekarpenak jantokiko arduradunaren bidez, zentrorra helarazi.
- k) Ikasleen bakarkako arazoak hitz egiteko tutoreengana zuzendu.

Haurrekin lan egiteko gutxiengoak eskatuko zaizkio begiraleak kontratatzen dituen enterpresari. Eskolan euskararen alde egiten den lana bultzatzeko euskaldunak izatea eskatuko zaio.

Irakasleei edota jantokiko arduradunari iradokizuank egiteko eskubidea izango dute, antolakuntza eta elkarbizitzako arauak hobetzeko asmoz.

II. TITULUA .BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

37. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak

SAN INAZIO HLHI ren ustez, bizikidetza bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorritik.⁴¹

38. artikulua. Bizikidetza-plana

SAN INAZIO HLHI k bizikidetza-plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat. Bizikidetza-planaren helburu nagusia bizikidetzan gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jardura eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabil daitezke.

39. artikulua. Eskubideen berehalako babesa

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte.⁴² Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehalara. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketaburuarengana joateko agindu.

40. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea

Ikasleek Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte.⁴³ Irakasleren batek ikusi badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehalara. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, ikasketaburuarengana joatea aginduko dio.

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

41. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea

SAN INAZIO HLHI ko irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

42. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea

1. Tutorek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, haurren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketaburu edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.
2. Irakasleek berdinkideen arteko tratu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzeman ez gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko du berehalara, egoki diren protokoloak aplikatu daitezkeen.
3. Ikasketaburuak zenbait irakasle –begien bistaz ikasle guztiak kontrolatzeko bezainbat– izendatuko ditu ikasleen jarduna jolas-orduan zaindu dezaten. Irakasleek jolas-orduan ikasleen jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute. Irakasleek bertatik bertara egon behar dute eta uneoro ikasleei begira egon. Zuzendariak jolas-orduan zenbait toki erabiltzea debekatu dezake, irakasleen zainketa zailtzen badute.

⁴¹ Irakasleen eskubideei eta betebeharrari ere erreferentzia egin dakieke. Irakasleen eskubideak eta betebeharrak irakasleei buruzko legeetan (LOEko III. Tituluan) eta funtzionarioen lege orokorretan (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 69-76 artikulua) jaso dira. Azken lege horiek administrazio eta zerbitzuetako langileei eragiten die. Irakasleak, halaber, sindikatu-legeen mende daude.

⁴² XII. eranskinean 201/2008 Dekretua ageri da oso-osorik.

⁴³ Ikusi aurreko oharra

43. artikulua. Onoreia, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea

1. Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ondria, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, SAN INAZIO HLHI ko agente-organoeak, tutoreak eta irakasle guztiak babestu beharko dute ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Zuzendaritza taldeak zenbait arau proposatuko dizkio OOGri grabatzeko bideen, sakelako telefonoen eta, oro har, teknologia berrien erabilerari buruz. OOGk, bere aldetik, arau proposatu horiek onartu ala ez aztertuko du. Aipatu berri ditugun arauen bidez, ikasleentzat ikasgelan grabazioak egitea, argazkiak ateratzea eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita egongo da.

2. Ikasgelatik kanpo –hau da, eraikinean edo eskola-barrutian– aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da ere hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK

44. artikulua. Printzipio orokorra

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak horiek ez betetzea, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.

2. Betebeharrak horiek betetzen ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

45. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, hainbestekoa non zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat har daitezkeen.

46. artikulua. Jokabide desagokiak⁴⁴

1. Jokabide desagokitzat arestian aipaturiko Dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak hartuko dira.

2. SAN INAZIO HLHI n, arestian aipaturiko Dekretuan jaso denaren arabera, ikaslea une horretan babespean duen irakasleak zuzenduko ditu jokabide desagokiak.

3. Ikasketaburuak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

47. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak⁴⁵

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.

2. Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkarengana joatea

⁴⁴ XII. eranskina

⁴⁵ XII. eranskina

aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

48. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak ⁴⁶

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.
2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

49. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da. Gatazka ebazteko, 201/2008 Dekretuko III. kapituluan aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA

50. artikulua. Printzipio orokorrak

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izatera duten eskubidea bermatze aldera, titulu honetan ezarri den berme-sistema ezarriko da. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

51. artikulua. Publikotasuna

1. Ikasketaburuak bermatu beharko du ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak Ikastetxeko Curriculum Proiektua eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkoren eskura egongo den Proiektuan ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta berorietan landuko diren oinarritzko gaitasunak.
2. Ikasketaburuak, halaber, bermatu beharko du didaktika-departamentuek eta irakasleek publiko egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxieneko edukiak, bestetik, ebaluazio-prozedura nahiz -irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeak egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurreikusi diren prozedurak.
3. Ikasketaburuak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heltzen zaiela.

52. artikulua. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa

1. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatuko dela. Zaindu behar du,

⁴⁶ XII. eranskina

halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerari nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuartearen dutela.

2. Tutorearen betebeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuari aipaturako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasle guztiek egin behar hori betetzen dutela.

3. Ikasketaburuak ziurtatu behar du ikasleen irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen gurasoekin hiruhilekoan behin bilduko direla ⁴⁷. Bermatu behar du, halaber, ikasleen gurasoen heren batek baino gehiagok eskatzen dituen bilerak egiten direla. Bilera horietan, goian aipaturiko alderdiak landuko dira, baita taldeko ikasleek alderdi horiek nola betetzen dituzten esan ere.

4. Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitezkeen informazioaz gain, tutoreak ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari aipatu bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete, IIPn ebaluazio-bilerak egiteko ezarri den gutxienezko aldizkakotasunez. Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenek jasotzen dutela ziurtatzeko.

Familiak eskatzen badu, gurasoak bananduta daudelako, informazioa bioztuta emango zaie.

5. Modu berean, zikloko edo ikasturteko azken ebaluazio-bileretan lantzen den informazioa igorriko du. Gutxienez, alderdi hauei buruzko informazioa emango da:

- Etapako eta arloetako helburu nagusien betetze-maila.
- Etapako edo irakasgaietako edukien barneratze-maila.
- Nota partzialak edo ikaskuntzaren balorazioak.
- Hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa, beharrezkoa izanez gero.

Txosten horietan, gainera, igarotzeko edo geratzeko erabakia arrazoitu behar du. Tutoreak idatziko ditu, irakasle taldearekin eztabaidatu ondoren, eta kontuan izan behar du ikasleak programaturako helburuak lortu ez dituen arlo edo gai bakoitzari dagozkion irakasleek egindako proposamenak edo txostenak. Txosten horiek, ikastetxean jasoko dira eta hurrengo zikloko edo kurtsoko irakaskuntza-eta ikaskuntza-prozesua orientatuko dute, irakasleek ikasgelako programazioak abiapuntu horretatik egokitu behar dituztelarik.

Promozioko erabakia bakarkako elkarrizketan informatuko zaie gurasoei. Tutoreak hala uste badu, ikasketa burua edota beste irakasleren bat egongo da bileran. Promozionatzeko edo ez promozionatzeko erabakia tutoreak hartuko du (inoiz ez gurasoek), hezkuntza prozesuan parte hartzen duten beste ikasleei entzun ostean.

53. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea

1. Ikasleek eta, hala egokitzuz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduari ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera izango dute. Behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute, idatziz hala eskatzen ba dute. Printzipioz nahiz eta informazioa eman, azterketak edo frogak ez dira etxera eramango.

2. Ikasketaburuak ezarriko du kopiak eskatzeko orriek bete behar duten prozedura. Horretarako kontuan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna.

3. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da. Ikaslearen ebaluazio jarraia ere kontutan hartuko da.

54. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea

⁴⁷ Datu hori orientagarria da. Ardura horiek zuzendariaren, ikasketaburuaren edo tutorearen esku utz daitezke.

Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta bi eskola-egun igaro aurretik, ahoz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berraztertzeko eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitzo, ikasketa buruari aholkua eska diezaioke auzia ebazteko. Horretarako, kontuan izango curriculum ofizialaz eta IIPz gain, programazio didaktikoak eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideak lotesleak direla.

55. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea

1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean.
2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzaileak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.
3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.

56. artikulua. Didaktika-departamentuak hartutako erabakiaren ondorioak

2. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.
3. Erreklamazioa onartu ez eta ikaslea, oraindik ere, erabakiarekin konforme ez badago, erreklamazio-idatzia jarri dezake zuzendariaren aurrean. Zuzendariak, kasu horretan, Hezkuntza-administratioari helaraziko dio ikaslearen erreklamazioa, eta Hezkuntza-administratioak erabaki bat hartu beharko du.

*AJA honen azken zuzenketa 2015eko ekainaren 1ean egin zen.